

Zentroko hobekuntza planak

- (1) Gaur egun, zentroko hobekuntza plana urteko planean jasota dago; hori dela eta, ez dago beste dokumentu bat egin beharrik.

Nola egin behar da simulazioa?

- (1) Proba on line egingo duten ikastetxeetan: - aplikazio-sistemaren frogaketa bakarrik etaparako zabaldutako egunetarako moldatu ahalko da + Ikasleek simulazioa egin ahal izango dute ISEI-IVEIko web orritik; horrela, ikasleek probarako trebezia lortu dezake.
- (2) Proba off line egingo duten ikastetxeak edo ordenagailuaren prestamoa jasoko duten ikastetxeak: ikasleek zentroko informatikako ordenagailuetan egin ahal izango dute simulazioa ISEI-IVEIko web orritik.

Probetako datetan, ikaslerik, gelarik konfinatuta egonez gero, zer gertatzen da?

- (1) Probako datetan, umea konfinatuta egonez gero, umeak ez du probarik egingo.
- (2) Probako datetan gela (k) konfinatuta dago/daude: (a) ikastetxeak etapa horretan gela(k) hori/horiek bakarrik badu/ditu orduan, beste data batean egingo dituzte probak.
- (3) Ikastetxean etapa batean gela bat baino gehiago badaude eta, horietatik bat edo bi badaude konfinatuta eta beste gelaren bat ikastetxean badago, orduan, ikastetxean dagoen gelak egingo du, konfinatuta egon diren gelek ez dute proba egingo.
- (4) Ikasleak ezin badu simulazioa egin konfinatuta dagoelako, simulazioaren URLaren bidez egin ahal izango du.

Simulazio eta proba-egunen zenbait kontu:

Simulazioan ondo badao, ziurtasuna izango dugu proba ondo joango dela?

- (1) Bai. Simulazioa ondo joanez gero proba-saioak ondo joango dira, ziurtasun hori ematen dugu. ED19an gertatuko arazoak konponduta daude.

Simulazioa zuek esandako egun konkretu batean izango da?

- (2) Bai, ikastetxeak erabaki duen egunean.

Prestamoko ordenagailuak probaren aurreko egun arte ez badira helduko, nola egin daiteke simulazioa?

- (3) Ikastetxeak dituen ordenagailuekin (informatika-ikasgela).

Zein da simulazioan sartzeko helbidea?

- (4) Simulazioaren URL: <https://probak.ediagnostikoak.net/simulazioa>

Zenbat denbora irauten du?

- (5) Simulazioa egiteko saio bat beharko da.

Ordutegia, simulazioan eta proba saioetan, ikastetxeak jarri dezake?

- (6) Zentroak adieraziko dio Ikertalde enpresari simulazioa noiz burutuko duen; simulazioa egin ostean enpresak zentrori deituko du jakiteko dena ondo joan den, edo arazoren bat egon bada proba aurretik konpontzeko.
- (7) Simulazioaren orduak eta proben ordutegiak ez dute zergatik bera izan behar; hala ere, simulazioa egiten denean, gela guztiek batera egin beharko dute eta ikastetxeak ohiko jarduera mantenduko du, Interneten egon behar diren ikasle guztiak daudela bermatuz.

Simulazioa eta proba egiteko aurikularrak behar dituzte?

- (8) Ikasleak aurikularrak behar dituzte simulazioa eta probak egiteko. Ikasleak bereak eraman behar ditu. Komenigarria da zentroak gelako 2-3 erreserba aurikular izatea badaezpada.

Ikasleak nola sartu egiten dira simulazio eta proban?

- (9) Simulazioan eta proban ikaslea bere kode pertsonalarekin (etiketan dagoena) sartu beharko da (kode estandarra zuzendarien bilerarako sortu zen, orain ez da beharrezkoa). Horrez gainera simulh4 ala simudbh2 sartu beharko du mailaren arabera.

Simulazio egunean simulazioan sartuko da ikaslea eta proba egunetan proban?

- (10) Bai, simulazio saioan ikaslea horretan sartuko da eta proba egunetan arazo barik proba-saioetan.

Erabaki daiteke zein ordutan hasi proba?

- (11) Bai, zentroak berak finkatzen du noiz hasi probak, beti ere, proben ordutegia errespetatuz (saioak, atsedenaldiak). Kasuren batean zentroko antolaketa, 1. saioaren ostean atsedena luzeena egiten bada, ISEI-IVEIren partetik ez litzateke eragozpenik egongo antolaketa-moldaketa hori egiteko. **BETI PROBAK GOIZEZ EGIN BEHAR DIRA eta JARRITAKO ORDENAN.**

Ikasleek proba bat amaitzean botoiren batean sakatu behar dute proba gordetzeko?

- (12) Probak orriz-orri grabatzen doa; horrez gainera, proba amaitutzat jotzeko ikasleak Amaitu klikatu beharko du.

Proba egunean ikasleak zerrendaren arabera eseri behar ditugu?

- (13) Proba egunean ikasleak ez dira derrigorrez zerrendan dauden ordena berean eseri behar.

1. eguneko 3. saioan ikasleek proba ezberdinak izango dituzte gelan, automatikoki ateratzen da?

- (14) 1. eguneko hirugarren saioan ikasle bakoitzari aterako zaion proba ausazkoa da; zuek ez duzue ezer egin behar.

Euskara salbuetsita dauden ikasleek, euskara ez dute egingo, ezta?

- (15) Euskara salbuetsita dauden ikasleek ez daude derrigortuta euskara konpetentzia egitera, nahiz eta egin dezake; eginez gero datuak ez dira kontuan hartzen batez besterako.

Kalkulagailurik izango dute proban bertan ala ekarri beharko dute?

- (1) Ikasleak nahi izanez gero kalkulagailua ekarri dezake simulazioa eta aproba egiteko.
- (2) Simulazioan eta proban kalkulagailua dago. Kalkulagailu arrunta da LH4an eta zientifikoa DBH2an. Kalkulagailu honek duen berezitasunak aurrez aurretik ikasleekin lantzea komeni da. Kalkulagailuak dira:

LH4:

<https://static.ediagnostikoak.net/v1/s21d2/multimedia/animazioak/calculadora.html>

DBH2:

<https://static.ediagnostikoak.net/v1/s21d2/multimedia/animazioak/calculadoraavanzada.html>

- (3) $2+3*5$ ongi egiten du?. Bai.

Sarbide egokitzapenak dituzten ikasleek zelan jokatu behar dugu?

- (1) Sarbide egokitzapenak dituzten ikasleek errekurtsua (PT,...) badute gelan egunero, aukera dute proban ere izateko, bestela ez. Hau da, ikasleak errekurtsorik ez badu, ezingo da sartu.
- (2) Proben egokitzapena izango dute ikusmen-desgaitasuna duten ikasleek.
- (3) Ikastetxeak erabakiko du NCE duten ikasleek proba egin ala ez.

Egokitzapen kurrikularrik ez duten ikasleek baina mapan dauden ikasleen kasua zelan da?

- (1) Egokitzapen kurrikularrik ez duten ikasleek mapan egon arren, beste ikasleek duten proba bera izango dute.
- (2) Ikaskuntza-zailtasun espezifikoa duten ikasleei datuen analisirako soilik kontuan hartuko dira konpetentzia bakoitzean ikasleak hasieratik azken galderaraino erantzun dituen galderak. Beraz, bere probaren analisisia ikasleari egokituta egongo da. Hortaz, ikasleak erantzun duen azken galderatik proba amaitu arte, erantzun gabeko galderak ez dira kontuan hartuko.
- (3) Gainera, kalkuluaren ikaskuntzarekin lotutako zailtasun espezifikoak dituzten ikasleei kalkulu mentaleko atalean soilik kontuan hartuko zaizkie hasieratik azken galdera arte erantzundako itemak.

Probetarako dokumentuak (*gelako zerrenda + etiketak + erreserba kodeak + II. eta III. formularioak*) nola eskuratuko ditugu? Nork bete behar ditu?

- (1) Ikastetxeak datuak sartzeko aplikatibotik dokumentuak eskuratu ahal ditu zuzenean: <https://sarrera.ediagnostikoak.net>.
- (2) Hala ere, ISEI-IVEIk ikastetxe guztiei dokumentu hauek bidaliko dizkie: Excel dokumentua, II. eta III. formularioak.

- (3) II. eta III. formularioak saio bakoitzean bete behar dira, gero aplikatiboan sartu beharko dira emaitzak. Ikastetxeak saio bakoitzean online ere sartzen joan ahal da.
- (4) II. eta III formularioak proba saioan gelako irakasleak egiaztatu eta bete behar ditu. Gero, zentroko ED21en koordinatzaileak aplikatiboan dena dagoela egiaztatu beharko du (zentroaren arabera aplikatiboan sartu ere bai).

Proba idatziak, paperez ala ordenagailuz?; nork zuzendu?

- (1) Proba idatziak DBH2n egingo dira bakarrik eta ordenagailuz.
- (2) Idatziak Ikertalde enpresako langileek zuzenduko dituzte. Horretarako, ISEI-IVEI ko teknikariek formazioa emango diete.

Ikasleek etxera eramateko galde-tegiak, nondik ateratzen dira?; geuk inprimatu behar ditugu? Ikasleak bigarren egunean ez badu ekarri galdera-sorta, zer egin behar dugu?

- (1) Galdera-sortak ez daude aplikatiboan.
- (2) Zentroak ez du galdera-sortarik inprimatu behar, ISEI-IVEIko otsaileko azken astean bidaliko ditu ikastetxera.
- (3) Ikasleak ez badu galdera-sortu ekarri, galdera-sortan betetzen lagunduko diogu, gogorarazten gurasoek esandakoa.

Irakasleek betetzeko galdera-sortak nola helduko dira? Nork bete behar ditu?

- (1) Irakasleentzako galdera-sortak on line bete beharko dira; esteka bat bidaliko da ikastetxeko zuzendaritzara, irakasleek sarbidea izan dezaten.
- (2) Zuzendaritzak bete beharreko galdera-sorta bat eta irakasleek bete beharreko bi daude: bat ebaluatzen den mailarako (Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila), taldearekin egindako lanarekin lotutako alderdiei buruzkoa. Bestea, klaustruko irakasle batzuentzako, gehienez 10 pertsonarentzako, euskararen ikaskuntzan eta erabileran oinarritutako galde-tegia da.

IKT: prestamoko ordenagailuak (TTL):

- Bateria proba guztia irauten dute?
- Dena prestatuta izango dute?
- Kaskoak ere jasoko ditugu?
- Maileguko portatilik ez dute Internetik izango. Simulaziorako sarbidea Interneten bidez baldin bada, zein izango da froga egunean

erabili beharko duten sarrera; Ordenagailuan kargatutako frogak, online egingo diren simulazio plataformaren berdinak izango dira?

- (1) Bateriak goiz osoa irauten dute. Hurrengo egunerako zentroan kargatu beharko dira.
- (2) Ordenagailuak eta bateriak bidaliko dira.
- (3) Kaskurik edo entzungailurik ez da bidaliko osasun-araua dela eta. Ikasle bakoitzak bereak eraman beharko ditu, garrantzitsua da aurreko egunean gogoratzea.
- (4) Bai, plataforma berdina erabiliko da baina ordenagailuan kargatuta. Ez du Interneten beharrik, informazioa ordenagailuan grabatuta geratzen da, eta handik IKERTALDEk aterako du.

IKT: Chromebook:

Ikasleek euren Chromebook propioarekin egin dezakete? edo nahi ta nahiez Jaurlaritzak bidalitakoak erabili behar dira?

- (1) Ikasleek euren Chromebookak erabil ditzakete edo Hezkuntza Sailak bideratutako ordenagailuak.
- (2) Zentroak bidalitako datuen arabera ikastetxez ikastetxe aplikazio-sistema erabakiko du Ikertalde enpresak zentroarekin batera. Baina azken hitza zentrokoa da.

Chromebooken kasuan zerbait instalatu behar da?

- (3) Ebaluazio Diagnostiko aplikazioa instalatu behar da. Bai kiosko moduan edo bestela erabiltzaile bat sortu probarako, instalatu erabiltzaile honi eta ikasleek erabil dezaten erabiltzaile hau proba egunean.

Lizentzia zer da?, guztiok eskatu behar dugu? Nola erosten da?

- (4) Lizentzia, Chromebook ordenagailuak kudeatzeko lizentzia bat da. Ezinbestekoa da kioskoa erabiltzeko. Baina ez duzue zertan erosi behar. Baldin baduzue hobe ze kiosko modua oso eroso da, baina ez izatekotan, kiosko gabe egingo zenukete.

Ze alde dago lizentzia izan eta ez izan?

- (5) Lizentziarekin kiosko erabili daiteke eta lizentziarik gabe ez. Kioskoa askoz erosoagoa da proba instalatzeko eta gainera, ikaslea proba bakarrik erabiliko duela bermatzen du. Hau da, kiosko gabe, YouTubera edo beste webgune batera jo dezake.

Chromebook kiosko ez bada, zerbait instalatu behar da ordenagailuetan edo URLarekin sartu behar da probetan?

- (6) Ebaluazio diagnostikoa aplikazioa.

Guk cloudready eta Chromebookak ditugu lizentziarik gabe, eta kioskorik gabe erabiliko dugu eta aplikazioa instalatuz.

(7) Primeran.

Ikertaldekoek esan ziguten ez zela ezer instalatu behar Chromebuketan, soilik Windowsetan. Baina orain esan duzue kiosko baietz. Hori horrela da?

(8) Bai instalatu behar da, baina oso erraza da eta Ikertaldeak ez du egiten. Ebaluazio diagnostikoa aplikazioa Chrome web storean bilatu eta instalatu. ISEI-IVEIk ED21erako duen prestakuntza-orrian dituzue jarraibideak.
<https://sarrera.ediagnostikoak.net/formakuntza/index.html>

Ikastetxean ordenagailu batzuk kiosko dute eta beste batzuk ez, nola egin behar dugu?

(9) Hoberena izango litzateke kiosko ahal duzuen ordenagailu guztietan jartzea eta besteetan aplikazioa instalatu. (Ebaluazio Diagnostikoa).

Kioskoan ordenagailuak edo ikasleen helbideak sartzen dira?

(10)Kioskoan ordenagailuak sartzen dira.

1. eguna bukatzen denean, aplikazioa Chromebooketatik kenduko dugu, bestela ezin izango dute Chromebooka erabili? Kioskoa aktibatu edo desaktibatu egin behar da egun bertan?

(11)Bai. 5 minutuko kontua da.

Googlek ez du agindua bat batean bidaltzen, ezta? baina aurretik eginez gero ikasleek ordenagailua ezin dute erabili.

(12)Bai, ia bat batekoa da. Proba hasi baino hamar minutu lehenago kioskoa ezarri eta ikasleen gailuak itzali eta piztu.

Chromebook-ak erabiltzen ditugu, baina Eskola2.0-ko ordenagailu batzuk eramango ditut prest bada ez bada, azken horietan guk zerbait instalatu behar dugu?

(13)Zentroko ordenagailuek ziurtasun-programa behar izatekotan, Ikertaldeko teknikaria joango da ordenagailu guztietan instalatzera, eguneratzera eta gero desinstalatzera.

IKT: Ipad kasuan: QRren eskaneoa behin eginda nahikoa da? Hurrengo egunerako gordeta geratuko litzateke?

(1) Bai.

IKT: Proban zehar wifi-aren konekzioa galdu egiten bada, proba hasieratik hasi beharko luke ikasleak? Ala proba egiten ari zen atalean jarraituko du?

- (1) Online proba orriz-orri grabatzen doa. Konexioa galduz gero aurreko orriak grabatutako erantzunak mantenduko dira.
- (2) Off line proba ez da amaiera arte grabatzen; ordenadorea aldatu beharrez izatekotan, proba berriro hasi beharko litzateke.

Ez zaigu argi geratu, froga egitea hautazkoa da ala derrigorrezkoa?

- (1) Ikasturte honetan, pandemiaren ezohiko egoera dela eta, erabaki da pandemiak Ebaluazio Diagnostikoaren aplikazioan eragiten diela uste duten ikastetxeek Ebaluazio Diagnostikoaren salbuespenez ez egitea

Trebatzeko materialak non egongo dira?

- (1) Trebatzeko eta formatzeko materiala gure ISEI-IVEIko orrian izango duzue. <https://sarrera.ediagnostikoak.net/formakuntza/index.html>

Gela unitarioak, nola antolatuko da, errefortzurik egongo da?

- (1) Ikastetxeak antolatu beharko du nola burutu egun horietako antolamendua ikastetxearen baliabide propioekin.
- (2) ISEI-IVEIk 3. eta 4. mailako ikasleak gela berean dauden kasurako 3. mailako ebaluazioa eskura jarriko du.

Zergatik ez dago kanpoko aztertzailek (aplikatzailek)?

- (1) Osasun-egoera dela eta, kanpoko probak aplikatzeko ez da kanpoko aplikatzailek egongo. Aurreko edizioetan, aplikatzaile bakoitzak egun bitik behin zentro ezberdin batera joan izan da, horrek esan nahiko luke hilabete batean zehar hainbat getetan sartuko litzatekela.